

## FAUNA PUBLIKOA

**“Lidergo intelektual eta morala  
—horrela definitu zuen  
hegemonia Gramscik— ez da zure  
arerioaren ustezko estrategiak  
agerraraziz irabazten”**

**Pello Otxandiano,**

**Sortuko herrigintzako idazkaria (Gaur 8)**

## Abuztua ere hortxe dugu



**Gorka Bereziartua Mitxelena**

@boligorria

“Antonio Gramscik erakutsi zigun hegemonia kontzeptua / sombrilla baten azpian puskaz hobe izango da ulertua”, kantatzen zuen Los Carradine taldeak *La clase obrera* kantatzen, zeinak deskribatzen duen, “alienazio” eta “gainegitura” artean, langile klasea nola doan paradisura... Marina d’Or-era. Kontua ez baita asturu txarreko belea izatea “winter is coming” esaka. Abuztua hortxe dugu, optimista izanez gero.

Uler diez artikulu honen abiapuntua: ez naiz ezker abertzalekoa eta ez daukat ideiarik ere nondik jo beharko lukeen sektore politiko horrek. Eta ulertzen da Pello Otxandianok, hain zuzen, barne-klabeen egindako irakurketa dela *Gaur 8*-n argitaratu duena. Baina txorimaloaren falaziaren adibide perfektua ere bada: egilearekin bat egiten ez duten militantzia-kideen iritziak karikaturizatzen ditu, bere jarrera errazago defendatzeko.

Ez zait iruditzen erakunde politiko bateko oinarriak kontzertatzeko modurik aproposena hori denik, batez ere inolako heldulekurik eskaini gabe egiten bada: edozein prozesu sozial garaian garaiko indar-harremanen ondorio dela dio —akaso korrelazio hori oso diferente ikusten du kaleko militante/sinpatizanteak eta beste maila bateko ardurak di-tuenak?—; eta errematatzen du esanez EA]rekin obsesionatu gabe, ezkerreko independentismoak argitu beharko lukeela bere proposamena —akaso zenbaitek, horren faltan, dauden arrisku potentzialez ohartarazi besterik ez du egin?—.

Beste bat ere izan daiteke problema: lehengo leninismoarekin edo oraingo joera gramsciarrarekin, lidergo intelektual eta morala etxetik hasten dela eraikitzen. Bestela, arriskua dago berririk ez erakartzeko. Eta zaharrak Marina d’Or-era joateko. ■

**EZ  
HANKA  
EZ  
BURU!**



**ZALANTZA  
ESKUBIDEA!**



AÖUR